

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1660

AGINDUA, 2024ko martxoaren 12koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2024. urterako garapenerako lankidetzaproiektuetarako laguntzen deialdia egiten duena.

Deialdia egiteko agindu honen bidez, Garapenerako Lankidetzaren Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen 2007ko otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuan (2007ko martxoaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 53. zk.) jasotako aurreikuspenak betetzen dira 2024. urterako. Dekretu hori Garapenerako Lankidetzaren Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen 2013ko uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatu zuen (2013ko uztailaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 143. zk.) gerora.

34/2007 Dekretuak garapenerako lankidetzaproiektuetarako laguntzak arautzen ditu, pobrezia-aren aurkako borrokan modu esanguratsuan laguntzen duen tresna gisa, Hegoaldeko herrialde pobretuetako prozesu endogenoak eta gaitasunak indartuz, eta, batez ere, tokian tokikoari eragiten dio estatukoarekin eta nazioartekoarekin duten harremanean, garapenerako lankidetzako irabazi-asmorik gabeko erakundeen bidez.

Geroago, 2023ko abenduaren 30ean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea jarri zen indarrean (2023ko abenduaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 247. zk.). Lege horrek arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuko VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua indargabetzen ditu. Hori dela eta, deialdi honek jasotzen du araudi berriak honako hauei buruz xedatutakoa: onuradunek beren gain hartutako betebeharrak; laguntzen kudeaketa eta deialdiaren ebazpena; ez-betetze kasuak, eta laguntzak itzultzeko prozedura.

Deialdi hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Garapenerako Lankidetzako IV. Gida Planean sartzen da. Plan hori 2022-2024 urteetarako luzatu zen, Gobernu Kontseiluaren 2022ko abenduaren 20ko Erabakiaren bidez. Garapenerako Lankidetzako IV. Gida Plana (luzatuta) eta 2024ko Urteko Plana Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web-orrian (www.elankidetz.euskadi.eus) daude argitaratuta, «Nortzuk gara» barruko «Plangintza» atalean. Era berean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikuluan xedatutakoa betez, deialdi hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak onartutako Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategikoan jasota dago.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 2024ko ekitaldirako onartutako aurrekontuak, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 2023ko abenduaren 22ko 21/2023 Legeak onartu baititu (2023ko abenduaren 29ko EHAA), deialdia finantzatzeko kreditu nahikoa jasotzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren 2020ko irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak xedatutakoaren arabera, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumenekoak dira garapenerako lankidetzarekin lotutako egitekoak.

Laguntza horien kudeaketari eta horretarako eman beharreko ebazpenei dagokienez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria da eskuduna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen 2008ko ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikuluan eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen 2010eko martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 5.b artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektoreak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bileran, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzeko 2008ko ekainaren 9ko 5/2008 Legearen 10.b) artikulua ematen dizkion ahalmenekin bat etorritik, deialdia egiteko agindu hau onartzea erabaki eta proposatu dio Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politike-tako sailburuari, bai eta hura emateko oinarritzko irizpideak onartzea ere.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2007ko otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuak arautzen dituen garapenerako lankidetzaproiektuetarako dirulaguntzetarako 2024rako deialdia egitea –34/2007 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen, zeina gerora aldatu egin baitzen, Garapenerako Lankidetzaren Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen 2013ko uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuaren bidez–.

2. artikulua.– Zuzkidura ekonomikoa.

Deialdi honetara bideratutako diru-zuzkiduraren zenbateko osoa 40.000.000 euro izango da. Dekretu arautzailean jasotako hiru laguntza-modalitateetako bakoitzerako zenbateko ekonomikoa honako hau da:

a) Garapenerako lankidetzaproiektuetarako laguntzetarako 31.700.000 euro erabiliko dira.

b) Produkzio-garapeneko, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntzetarako 1.600.000 euro erabiliko dira.

c) Garapenerako hezkuntzaproiektuetarako laguntzetarako 6.700.000 euro erabiliko dira.

3. artikulua.– Proiektu bakoitzeko eskatutako dirulaguntza.

Proiektu bakoitzeko eskatutako dirulaguntza ezingo da 600.000 eurotik gorakoa izan.

Erakunde bakoitzak, banaka edo partzuergoan, gehienez 4 proiektu aurkeztu ahal izango ditu deialdi honetan. Kopuru hori 6 proiekturaino zabaldu ahal izango da, baldin eta proiektu horietako bi Afrika kontinentean gauzatzen badira.

4. artikulua.– Erakunde bakoitzak gehienez eska dezakeen zenbatekoa.

Erakunde eskatzaile bakoitzak gehienez ere 2024ko aurrekontu-ekitaldian ematen diren dirulaguntzen % 7 eskuratu ahal izango du, hau da, 4.070.667,61 euro, garapenerako lankidetzaren kargura urtean onartzen diren laguntzen edozein deialditan, dirulaguntza horiek etorkizuneko ekitaldietan ordaintzen diren kontuan hartu gabe.

5. artikulua.– Laguntzak ordaintzea.

Emandako dirulaguntza honela ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 25ekoa, dirulaguntza onartu ondoren egingo da.

b) Bigarren ordainketa, dirulaguntzaren guztizkoaren % 40koa, gutxienez ordaindutako dirulaguntzaren % 80 egin dela justifikatu ondoren egingo da.

c) Hirugarren ordainketa, dirulaguntzaren guztizkoaren % 35ekoa, gutxienez ordaindutako dirulaguntzaren % 80 egin dela justifikatu ondoren egingo da.

6. artikulua.– Eskabideen epea, aurkezpena eta formalizazioa.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.– Eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta deialdi honen ondoriozko gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoen bidez bakarrik egingo dira.

3.– Eskabide-inprimakia eskuratzeko eta betetzeko, www.euskadi.eus egoitza elektronikoa baino ez da erabiliko; hain zuzen ere, Laguntzak eta Dirulaguntzak atala.

4.– Kanal elektronikoen bidez izapidetzeko zehaztapenak eta eskabide-inprimakia aipatutako egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri. Laguntzaren informazio gehigarria lor daiteke www.euskadi.eus webgunean, Laguntzak eta Dirulaguntzak atalean.

5.– Erakunde interesduna espedientera sartzeko, dokumentazioa aurkezteko eta zuzentzeko, eta prozedura honetako jakinarazpenak eta gainerako izapideak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa dagoen «Nire karpeta» aplikazioa eta aplikazio hori soilik erabiliko da: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

6.– Eskabidearekin batera, erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonaren edo erakundearen sinadura elektronikoa aitortuaz gain, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak eta Administrazioak eska ditzakeenak aurkeztu beharko dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

7.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, interesdunaren alde aurreko baimenarekin, ofiziosz begiratu, egiaztatu edo baieztatuko du administrazio eskudunean legezko ordezkariaren akreditazioa. Hala ere, beste pertsona bati eman ahal izango zaio ordezkari, haren izenean baliabide elektronikoen bidez jardun dezan ebazpen honi dagozkion jarduketa guztietan. Horretarako, honako hauek erabiliko dira:

– Ahalordeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa dagoena (<https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>), edo

– Borondatezko ordezkari emateko inprimaki normalizatua (https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/egoitza_ordezkarier_erregistro/es_egoitza/adjuntos/formulario_otorgamiento_representacion_guardable.pdf), behar bezala formalizatua. Inprimakia eskabideari erantsi behar zaio. Pertsona juridikoek ordezkari-ahalordearen kopia, edo ahalorde-emailea erakunde ordezkari-emailearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duen legezko zeinahi dokumentu erantsi beharko dute.

Ordezkariek egoitza elektronikoko horretan elektronikoki identifikatzeko onartutako bitarteko bat izan beharko du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartzen diren identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

8.– Laguntza-eskabidea, eskatutako dokumentazioarekin batera, nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da.

9.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehazten diren baldintzak.

7. artikulua.– Eskabidearen edukia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Erakunde eskatzaileak telematikoki bete behar du I. eranskineko eskabide-formularioa, eredu normalizatuan, oso-osorik, eta eskaera aurkezteko behar diren datu orokorrak jasoko ditu. Era berean, erakunde eskatzailearen/partzuergoko buruaren erantzukizunpeko adierazpen hauek jasoko dira eskabidean:

a) Laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa duela; hala eskatzen zaionean, Administrazioaren esku jarriko duela; eskubidea aitortzeak dakarren denboran eskakizun horiek betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen duela; funtsezko zehaztasunik ezak, faltsutasunak edo omisioak erantzukizun penal, zibil edo administratiboak ekar ditzakeela, eta Administrazioak egiaztatze-, kontrolatze- eta ikuskatze-ahalmenak dituela esleituta.

b) Konpromisoa hartzen dutela xede eta helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatu eta, hala badagokio, eskuratu izanaren berri emateko. Dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek edozein administrazio edo ente publiko zein pribatutatik etorritakoak izan daitezke.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren organismo autonomoek eta beste entitate batzuek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta dagoen ala ez.

d) Ez dagoela sartuta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako ezein debekutan.

e) Ez duela laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratibo edo penalik, ez eta horretarako ezgaitzen duen legeko debekurik ere, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1.h) artikulua araberan sexu-diskriminazioa egiteagatik edo LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatzeagatik (konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne), Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko 2023ko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen araberan.

f) Ez dagoela Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko 2022ko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan aurreikusitako egoera eta kasuetako batean ere.

g) Egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Ekonomia eta Ogasu-neko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan jasotako eskakizunen araberan (agindu hori zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egiaztatzeari buruzkoa da), bai eta dirulagun-

tzak itzultzeari buruzkoak ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan. Halaber, konpromisoa hartzen du betebeharroriek betetzen jarraituko duela emandako laguntza edo dirulaguntza osoa justifikatu arte.

2.– Eskabide-orriarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Erakunde eskatzaileen partzuergoa eratzen bada, gainerako erakunde eskatzaile bakoitzak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da. Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia www.euskadi.eus webgunean dago argitaratuta, Laguntzak eta Dirulaguntzak atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webguneko «Deialdiak» ataleko «Laguntzak, beka eta sariak» eremuan.

b) Lankidetzaren arloan gutxienez bi urtez modu jarraituan izandako esperientzia egiaztatzea, baldin eta erakundearen estatutuetan berriaz adierazten ez bada bere helburuen artean hegoaldeko herrialdeetan garapenerako lankidetzarako proiektuak egitea dagoela. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, interesdunaren alde aurreko baimenarekin, ofizioz begiratu, egiaztatu edo baieztatuko du akreditazio hori administrazio eskuduneari.

Hala ere, estatutuetan helburu hori zehaztuta ez badago, gutxienez bi urtez jarraian izandako esperientzia egiaztatu beharko da, agiri hauetakoren bat aurkeztuz: administrazio publikoek emandako ziurtagiriak edo ebazpenak, edo interesduna bera ez den beste erakunde pribatu batzuek emandako ziurtagiriak (auditoriak barne), edo administrazio publikoek diruz lagundutako proiektuak jasotzen dituzten aldizkari ofizialen argitalpenak, edo horretarako eskumena duten organoek ziurtatutako urteko memoriak edo kontuak, esperientzia jarraitu hori berriaz jasotzen dutenak.

c) Esku-hartzean parte hartzen duten tokiko bazkideen eratze-eskritura edo estatutuak eta erre-gistro-dokumentazioa, gutxienez eskaera aurkezteko epea amaitu baino urtebete lehenagokoak.

Baldin eta, tokiko bazkidearen izaera juridikoa dela eta, ezintasun juridikoren bat badago, edo herrialdearen inguruabarren ondoriozko ezintasun politikoren bat badago, erregistroko inskripzioaren betekizuna egiaztatu ordez, tokiko bazkidearen nortasun juridikoa, esperientzia eta jarduera egiaztatu dezakeen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

d) Erakundearen partzuergoa eratzen bada, bai eskatzaileena, bai tokikoena, haien artean sinatutako erantzukidetasun-hitzarmena aurkeztuko da, eredu normalizatuan, behar bezala beteta eta sinatuta; hau da, orri guztietan sinatuta, eskuz sinatuz gero, edo hitzarmenaren azken orrialdean, sinadura elektronikoarekin. Hitzarmenaren eredia www.euskadi.eus webgunean dago argitaratuta, Laguntzak eta Dirulaguntzak atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webguneko «Deialdiak» ataleko «Laguntzak, beka eta sariak» eremuan.

e) Gastuak ordainagiri bidez eta fakturarik gabe justifikatzea aurreikusten bada, azalpen-memoria bat aurkeztu beharko da, hori justifikatzen duten arrazoiekin. Azalpen-memoriaren eredia www.euskadi.eus webgunean dago argitaratuta, Laguntzak eta Dirulaguntzak atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webguneko «Deialdiak» ataleko «Laguntzak, beka eta sariak» eremuan.

f) Erakunde eskatzaileak atzerriratutako pertsonak bidaltzen baditu, justifikazio-memoria bat aurkeztuko da, egin beharreko lanak eta horien iraupena deskribatuko dituen eta beharrezko gaitasun- eta kalifikazio-irizpideak bilduko dituen. Justifikazio-memoriaren eredia www.euskadi.eus webgunean dago argitaratuta, Laguntzak eta Dirulaguntzak atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webguneko «Deialdiak» ataleko «Laguntzak, beka eta sariak» eremuan.

g) Garapenerako lankidetzako proiektuetan eta garapenerako hezkuntzako proiektuetan, pro-formako fakturak, aurrekontuak edo kanpoko balorazioak, Garapenerako Lankidetzaren Funtzaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen 2007ko otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 22.3.b) artikuluan ezarritako kasuetan (2013ko uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori).

h) Txandakako funtsa izatea aurreikusten bada, dagokion azalpen-memoria aurkeztuko da. Justifikazio-memoriaren eredia www.euskadi.eus webgunean dago argitaratuta, Laguntzak eta Dirulaguntzak atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webguneko «Deialdiak» ataleko «Laguntzak, bekak eta sariak» eremuan.

i) Ez da beharrezkoa izango erakunde eskatzaileak ordezkaritza iraunkorra edo egoitza nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan duela akreditatzea edo erregistroko inskripzioa aurkeztea, baldin eta erakundeak baimena ematen badio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari horiek ofizioz begiratu, egiaztatu edo baieztatzeko administrazio eskuduneari.

3.– Pertsona edo erakunde eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Hala ere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak datu-bitartekaritzako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta eginez egiaztatu ahal izango du. Salbuespen gisa, gorabeheraren batek datu horiek lortzea eragozten badu, erakundeari dagozkion dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango zaio.

4.– Proiektuak baloratzeko, erakunde eskatzaileak honako agiri hauek aurkeztu ahal izango ditu:

a) Esku-hartzearen kalitatea eta zeharkako alderdien integrazioa baloratzeko: proposamen teknikoa eta dirulaguntzaren aurrekontu banakatua, www.euskadi.eus webguneko Laguntzak eta Dirulaguntzak atalean eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webguneko «Deialdiak» eremuaren barruan «Laguntzak, bekak eta sariak» atalean argitaratutako ereduaren arabera. Proposamen teknikoan gehienez ere 35.000 hitz sar daitezke. Proposamen teknikoan hitz gehiegi egotea ez da kontuan hartuko aurkeztutako proiektua baloratzeko garaian.

b) Esku-hartzearen bideragarritasuna eta iraunkortasuna baloratzeko, garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntzen eta produkzio-garapenerako, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntzen kasuan: obra edo azpiegituren karpeta teknikoak, bideragarritasunaren eta merkatuaren azterketa, abalak, materialei eta metodologiei buruzko edukiak dituzten prestakuntza-planak, jasangarritasuneko konpromisoak.

c) Esku-hartzearen bideragarritasuna eta jasangarritasuna baloratzeko, garapenerako hezkuntza-proiektuetarako laguntzen kasuan: material eta metodologiei buruzko edukiak dituzten prestakuntza-planak, jasangarritasuneko konpromisoak.

d) Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako eta garapenerako hezkuntza-proiektuetarako laguntzen kasuan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, erakunde eskatzaileek baimena eman ondoren, ofizioski egiaztatuko du Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin, erakunde eskatzaileak Euskadiko GGKEen Koordinakundeari atxikita dauden ala ez.

e) Produkzio-garapenerako, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntzen kasuan, proiektuaren gaiarekiko lotura duen nazioarteko koordinakunde, sare edo mugimendu bateko kide dela egiaztatzeko ziurtagiria erantsi beharko da.

f) Garapenerako hezkuntza-proiektuetarako laguntzen kasuan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, erakunde eskatzaileek baimena eman ondoren, ofizioz egiaztatuko du Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin, ea erakunde eskatzaileek Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako talde eta prozesuetan parte hartzen duten. Euskadiko GGKEen Koordinakundeaz edo (H)abian jarraipeneko batzordeaz bestelako Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako talde eta prozesuetan parte hartzen badute, parte-hartze horren ziurtagiria erantsi beharko da.

8. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoko Zerbitzuari dagokio dirulaguntzen lerro honen kudeaketa-lanak egitea.

9. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

Hautaketa Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Batzordeburua: Alazne Camiña Izkara, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoko arduraduna.

- Batzordekidea: Alicia Alemán Arrastio, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzateknikaria.

- Batzordekidea: Iosu Aranzabal Abaitua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzateknikaria.

- Batzordekidea: Ainara Arrieta Archilla, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzateknikaria.

- Batzordekidea: Mónica Fernández Vidal, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzateknikaria.

- Batzordekidea: Javier Galaz de la Torre, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzateknikaria.

- Batzordekidea: Maite Garmendia Eguinoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzateknikaria.

- Batzordekidea: Nagore Gorostiza Mendia, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzateknikaria.

- Batzordekidea: Leire Gutierrez Díez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzateknikaria.

- Batzordekidea: Arkaitz López Sánchez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzateknikaria.

- Batzordekidea: Karen Rodríguez Guinea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzateknikaria.

- Batzordekidea: Miren Saiz Alzugaray, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzateknikaria.

- Batzordekidea: Ana María Tellería Gallastegui, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzateknikaria.

- Batzordekidea: Mikel Varela García, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzeta-teknikaria.

- Batzordekidea: Edurne Bengoechea Sorozabal, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako genero-programa eta -gaietako teknikaria.

- Batzordekidea eta idazkaria: Iker Del Río Lahidalga, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzeta-teknikaria.

10. artikulua.– Hautaketa-irizpideak.

Hautaketa Batzordeak baloratuko ditu eskatutako baldintza guztiak betetzen dituzten eskabi-deak, agindu honen II. eranskinean jasotako irizpideen arabera.

11. artikulua.– Esleipena egiteko organo eskuduna eta instrukzioa.

Hautaketa Batzordeak laguntza-eskabideen azterketa teknikoa eta balorazioa egingo ditu, eta txostena helaraziko dio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektoreari. Kontseilu Errektoreak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariari proposatuko dio dagozkion laguntzak eman ditzala. Azkenik, eskatutako laguntzak esleitzeko eta ukatzeko ebazpena emango du zuzendariak.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria da deialdian jasotako laguntzak esleitzeko organo eskuduna.

12. artikulua.– Ebazpena eta argitalpena.

1.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpena, eskatutako laguntzak esleitu eta ukatzekoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluko xedatutakoa betez, eskaera aurkeztu den datatik zenbatzen hasi eta 6 hilabeteko epean berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

2.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26.2 artikuluan ezarritakoa betez, emandako dirulaguntzen zerrenda egoitza elektronikoan argitaratuko da.

13. artikulua.– Laguntza onartzea.

Behin betiko ebazpenaren onuradun den erakundeak hamar egun balioduneko epea izango du, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, laguntza onartu duela jakinarazteko.

Laguntza onartzeko epea amaitu eta ez bada berariaz onartu, onuradunak dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da.

Dirulaguntza onartu ondoren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta erakunde esleipendunak hitzarmen bat sinatuko dute emandako dirulaguntza bakoitzeko, finantzatu beharreko proiektu motaren arabera.

Izenpetu beharreko hitzarmena telematikoki izapidetuko da laguntza onartzean. Publikotasun-helburuetarako, hitzarmen horren edukia www.euskadi.eus webgunean dago argitaratuta, Laguntzak eta Dirulaguntzak atalean, bai eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webguneko «Deialdiak» ataleko «Laguntzak, bekak eta sariak» eremuan ere.

14. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Laguntzaren erakunde onuradunek, Garapenerako lankidetzaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen 2007ko otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuan (gerora 2013ko uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatu zuen) zehaztutako betebeharez gain, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. eta 42. artikuluetan ezarritako betebeharrak eta deialdi honetan aipatzen diren laguntzak jasotzeagatik eska daitezkeen legezko beste betebeharrak guztiak bete beharko dituzte.

15. artikulua.– Laguntzak itzultzea eta horretarako arrazoiak.

Dirua itzultzeko arrazoiak eta bidegabe jasotako laguntzak azkentzeko eta itzultzeko prozedura Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen III. tituluko 36. artikuluan eta hurrengoetan eta hirugarren xedapen gehigarriko laugarren apartatuan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

16. artikulua.– Datu pertsonalak.

Eskabideetan jasotako datu pertsonalak «Garapenerako lankidetzako laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira. Datu pertsonal horiek Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregulamentuan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Garapenerako lankidetzaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen 2007ko otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuak (2013ko uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuaren bidez aldatua) 23.4 artikuluan ezartzen duenez, erakunde eskatzaile bakoitzak eskuratu ahal izango dituen dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa dagokion ekitaldian onartzen den lehenengo laguntza-deialdian zehaztuko da.

Agindu horretan ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaile bakoitzak gehienez ere 2024ko aurrekontu-ekitaldian ematen diren dirulaguntza guztien % 7 jaso ahal izango du. Hau da, zenbateko hori 4.070.667,61 eurokoa izango da, urtean onartutako garapenerako lankidetzaren konturako laguntzen edozein deialditan, dirulaguntza horiek etorkizuneko ekitaldietan ordaintzen diren kontuan hartu gabe.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan aipatzen diren laguntzak honako hauetan oinarritzen dira: 39/2015 Legea, 2015eko urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 20/2023 Legea, 2023ko abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa, eta 34/2007 Dekretua, 2007ko otsailaren 27koa, Garapenerako Lankidetzaren Funtsetan kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen (dekretu hori, gerora, aldatu egin zen, Garapenerako Lankidetzaren Funtsetan kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzeko 2013ko uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuaren bidez).

2024ko apirilaren 8a, astelehena

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 12a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

I. ERANSKINA

ESKABIDEA

GARAPENERAKO LANKIDETZAKO PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK (K1)

I. eranskin hau eskabide normalizatuaren edukiari publikotasuna emateko bakarrik eranstean zaio deialdi-aginduari. Garapenerako lankidetzako proiektuetarako laguntza bat (K1) eskatu nahi duen erakundeak ez du eranskin hau erantsi behar; aitzitik, telematikoki bete beharko du, www.euskadi.eus webgunearen «Laguntzak eta dirulaguntzak» atalean.

Izartxoaz (*) markatutako eremuak nahitaezkoak dira

Norentzat:

Erakundea: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

Instrukzio-organoa: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIako ZUZENDARITZA

DATU PERTSONALAK**Eskatzailea:**

Honela dihardu: Espedientean interesdun den pertsona/erakundea: Honen ordezkaria:

Identifikazio-agiria	Zenbakia	Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Sexua

DATU JAKINARAZPENAK**Jakinarazpenak eta komunikazioak helbide honetara bidaliko dira:**

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala*

Elektronikoa: [Nire karpeta](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, [identifikazio elektronikorako bitarteko](#) bat beharrezkoa da.

Kanal elektronikoa gainera oharra: jakinarazpen elektronikora sartzeko ez bazara, jakinarazpena emango da Nire karpeta eskuragarri jartzen denetik 10 egun naturaleko epean. Esandako epea betetzen denean, jakinarazpena ukatu egin duzula ulertuko da, eta horrela jasoko da espedientean. Izapidea egintzat emango da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisua jasotzeko datuak

Nire karpeta jakinarazpen edo komunikazioen bat jasotzeko abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera.

Posta elektronikoa* _____

Berretsi posta elektronikoa _____

Telefono mugikorra _____

Komunikazio hizkuntza*

Mezu elektronikoa eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak zuk aukeratutako hizkuntzan bidaliko dizkizugu.

- Euskara Gaztelania

Datuak erabiltzeko baimena

- Nire komunikazio eta abisuetarako datuak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekiko harremanetan erabiltzea nahi dut.
- Nire komunikazio eta abisuetarako datuak espediente hau kudeatzeko bakarrik erabiltzea nahi dut.

DOKUMENTAZIOARI BURUZKO OHARRA**Ez da beharrezkoa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian dagoen dokumentazioa aurkeztea**

Aldez aurretik aurkeztu bada, ez da beharrezkoa izango eskabide honi lotutako dokumentazioa berriz aurkeztea. [DOK] bidez identifikatutako inprimakiaren atal bakoitzean, dokumentu horietako bakoitza aurkeztu zen deialdiaren espediente-zenbakia eta urtea (2019tik aurrera) adierazi beharko dira, eta indarrean jarraitu beharko dute.

Dokumentuen hizkuntza

Euskaraz edo gaztelaniaz ez dauden dokumentuekin batera gaztelaniarako edo euskarako itzulpena aurkeztu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera.

PROIEKTUAREN DATUAK**Erreferente den pertsonaren datuak**

Izena *

Lehen abizena *

Bigarren abizena

Lanpostua eta kargua

Telefonoa *

Helbide elektronikoa *

Laguntzaren modalitatea

Programa: PRO

Lerroa: K1

Erakunde eskatzaileen partzuergoa

Partzuergoan aurkeztutako ekimen bat da? * Bai Ez

2024ko apirilaren 8a, astelehena

Erakunde eskatzailearen/partzuergo buruaren (LEHEN TOKIAN) eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten partzuergoko erakundeen datuak (GUZTIAK)

Agenteen Erregistro Kodea	Izena	IFZ	Gauzatu beharreko dirulaguntzaren %-a	Erregistroa	Erregistro-data

Egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo duten partzuergoko erakundeen datuak (GUZTIAK)

Izena	IFZ	Mota	Helbidea	PK	Probintzia	Udalerrria	E-maila	Webgunea	Gauzatu beharreko dirulaguntzaren %-a	Zein erregistroan inskribatuta	Erregistroa	Erregistro-data

[DOK] Egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo duten partzuergoko erakundeen egiaztagiriari

Erakundearen izena*

Espedientearen zenbakia*

Aurkezpen-data*

Tokiko erakundeen arteko partzuergoaPartzuergoan aurkeztutako ekimen bat da? Bai Ez**Tokiko erakundeen datuak (GUZTIAK)**

Kodea	Izena	Herrialdea	Eskualdea	Udalerrria	Helbidea	Telefonoa	E-maila	Webgunea	Gauzatu beharreko dirulaguntzaren %-a	Erregistroa	Erregistro-data	Herrialdea

[DOK] Eraketa eskriturak edo estatutuak eta tokiko erakundearen erregistro ziurtagiria

Erakundearen izena*:

Espedientearen zenbakia*:

Aurkezpen-data*:

Gauzatu beharreko dirulaguntzaren ehunekoa guztira (eskatzailea(k) + tokikoa(k)) *

Oharra: sartutako balioak % 100 izan behar du

Proiektua

Proiektuaren izenburua (gehienez 150 karaktere) *

Proiektuaren laburpena (gehienez 400 karaktere) *

Gauzatzen den herrialdea/herrialdeak *

CRS generikoa. Hautatu ekimenak laguntzen duen CRS generikoa *

CRS espezifikoa. Hautatu ekimenak laguntzen duen CRS espezifikoa *

GJH hautatu ekimenak laguntzen duen GJH nagusia *

GJH helmuga. Adierazi ekimenak laguntzen duen GJH helmuga nagusia *

Proiektuaren iraupena

Aurreikusitako hasiera-data *

Zenbat hilabetetan gauzatuko den *

Xede-biztanleria / ezaugarriak**1. Zehaztu guztizko xede-biztanleria, kokapen geografikoaren arabera:**

Esku-hartzearen herrialde(eta)ko/eremu(eta)ko xede-biztanleria:

Emakumeak: *

Gizonak: *

Ez-bitarrak: *

Guztira: *

Modu gehigarrian, beste lurralde batzuetako xede-biztanleria:

Emakumeak: *

Gizonak: *

Ez-bitarrak *

Guztira: *

Ekimenaren jardueretan zuzenean parte hartzen duen xede-biztanleria:

Emakumeak: *

Gizonak: *

Ez-bitarrak *

Guztira *

2. Xede-biztanleriaren karakterizazioa, zein da gehiengoa irizpide hauen arabera:

Xede-biztanleriaren sexua * Hautatu aukera

 Emakumeak Gizonak Ez-bitarrak Guztiak

Xede-biztanleriaren adina * Hautatu aukera

 Haurtzaroa Gaztaroa Helduak Adinekoak Denetarik

Xede-biztanleriaren mota * Hautatu aukera

 Nekazariak Indigenak Afrikarren ondorengoak Beste batzuk

Testuingurua * Hautatu aukera

 Hiritarra Landatarra Kanpamentuak Beste batzuk**Proiektuaren finantzaketa**

Kostua guztira (eurotan) * Eskatutako dirulaguntza (eurotan) * Baterako finantzaketa (eurotan) *

Baterako finantzaketaren %-a *

Aurrekontu-taula

Zenbaki-motako eremuetarako balio duen formatua honako hau da: #.###,##, hau da, milakoetan puntu eta hamartarretan koma.

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIARI ESKATUTAKO KOPURUAK**A. Zuzeneko kostuak**

A.I.- Eraikin edo lurzatiak erostea

A.II.- Eraikinak jasotzea

A.III.- Ekipoak eta materiala

A.IV.- Tokiko langileen kostua

A.V.- Erbesteratutako langileen kostua

A.VI.- Trebakuntza eta prestakuntza kostua

A.VII.- Errotazio-funtsa

A.VIII.- Funtzionamendu-kostuak

A.IX.- Ebaluazio-kostuak

Zuzeneko kostuak, guztira

B. Zeharkako kostuak

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-gastuak*

Zeharkako kostuak, guztira

Guztira

Guztira

EUSKAL ERAKUNDE ESKATZAILEAK EDO ESKATZAILEEK EMANDAKO KOPURUAK

A. Zuzeneko kostuak

A.I.- Eraikin edo lurzatiak erostea

A.II.- Eraikinak jasotzea

A.III.- Ekipoak eta materiala

A.IV.- Tokiko langileen kostua

A.V.- Erbesteratutako langileen kostua

A.VI.- Trebakuntza eta prestakuntza kostua

A.VII.- Errotazio-funtsa

A.VIII.- Funtzionamendu-kostuak

A.IX.- Ebaluazio-kostuak

Zuzeneko kostuak, guztira

B. Zeharkako kostuak

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-gastuak*

Zeharkako kostuak, guztira

Guztira

Guztira

TOKIKO ERAKUNDEAK EDO ERAKUNDEEK ETA/EDO XEDE-BIZTANLERIAK EMANDAKO KOPURUAK –EKARPEN BALORIZATUA–

A. Zuzeneko kostuak

- A.I.- Eraikin edo lurzatiak erostea
 - A.II.- Eraikinak jasotzea
 - A.III.- Ekipoak eta materiala
 - A.VI.- Trebakuntza eta prestakuntza kostua
- Zuzeneko kostuak, guztira

Guztira

Guztira

TOKIKO ERAKUNDEAK EDO ERAKUNDEEK ETA/EDO XEDE-BIZTANLERIAK EMANDAKO KOPURUAK –EKARPEN EZ BALORIZATUA–**A. Zuzeneko kostuak**

- A.I.- Eraikin edo lurzatiak erostea
 - A.II.- Eraikinak jasotzea
 - A.III.- Ekipoak eta materiala
 - A.IV.- Tokiko langileen kostua
 - A.V.- Erbesteratutako langileen kostua
 - A.VI.- Trebakuntza eta prestakuntza kostua
 - A.VII.- Errotazio-funtsa
 - A.VIII.- Funtzionamendu-kostuak
 - A.IX.- Ebaluazio-kostuak
- Zuzeneko kostuak, guztira

Guztira

Guztira

BESTE EKARPEN BATZUEI DAGOZKIEN KOPURUAK (DIRULAGUNTZAK, LAGUNTZAK, DIRU-SARRERAK EDO BESTELAKO BALIABIDEAK, PUBLIKOAK ZEIN PRIVATUAK)**A.I.- Zuzeneko kostuak**

- A.I.- Eraikin edo lurzatiak erostea
 - A.II.- Eraikinak jasotzea
 - A.III.- Ekipoak eta materiala
 - A.IV.- Tokiko langileen kostua
 - A.V.- Erbesteratutako langileen kostua
 - A.VI.- Trebakuntza eta prestakuntza kostua
 - A.VII.- Errotazio-funtsa
 - A.VIII.- Funtzionamendu-kostuak
 - A.IX.- Ebaluazio-kostuak
- Zuzeneko kostuak, guztira

Guztira

Guztira

GUZTIZKOA, PARTIDAREN ARABERA

2024ko apirilaren 8a, astelehena

A. Zuzeneko kostuak

A.I.- Eraikin edo lurzatiak erostea

A.II.- Eraikinak jasotzea

A.III.- Ekipoak eta materiala

A.IV.- Tokiko langileen kostua

A.V.- Erbusteratutako langileen kostua

A.VI.- Trebakuntza eta prestakuntza kostua

A.VII.- Errotazio-funtsa

A.VIII.- Funtzionamendu-kostuak

A.IX.- Ebaluazio-kostuak

Zuzeneko kostuak, guztira

Guztira

Guztira

B. Zeharkako kostuak

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-gastuak

Zeharkako kostuak, guztira

Guztira

Guztira

Tokiko moneta euro bihurtzeko erabilitako kanbio-tasa (KT)

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, eLankidetzan aurkeztutako proiektuetan ohikoenak diren moneten KTrekin zerrenda sortuko du laguntza-dokumentu gisa, eta deialdi-agindua argitaratu eta hurrengo egunean argitaratuko da www.euskadi.eus webgunean, Laguntzak eta Dirulaguntzak atalean. Agiri honetan exekuzio-herrialdeari dagokion moneta aurkitzen ez bada, Oandak deialdiaren Agindua argitaratzen den egunean zehaztutako kanbio-tasa hartuko da kontuan.

Tarteko dibisa (KT) *

Tarteko dibisa (moneta) *

Tokiko dibisa 1 (KT)

Tokiko dibisa 1 (moneta)

Tokiko dibisa 2 (KT)

Tokiko dibisa 2 (moneta)

Proiektuari buruzko beste datu batzukEkimenaren esparruan ebaluazio bat egitea aurreikusten da: Bai EzAtzerriratutako langilea kontratatzea aurreikusten da: Bai EzErrotazio-funts bat edukitzea aurreikusten da: Bai EzOrdainagiriak erabiltzea aurreikusten da: Bai Ez**Proiektuan partaidetza esanguratsua duten erakundeen datuak**

2024ko apirilaren 8a, astelehena

Proiektuan entitate edo kolektiboen partaidetza esanguratsua aurreikusten da? * Bai Ez

Aurreko erantzuna «bai» baldin bada:

Erakundeak/Kolektiboak

Erakundearen/kolektiboaren izena

Sarean lan egiteari buruzko datuak

Proiektuaren esparruan, sarean lan egitea aurreikusten da? * Bai Ez

Aurreko erantzuna «bai» baldin bada:

Sarea/sareak

Sarearen edo sareen izena

DATU OSAGARRIAK

Zenbakizko motako eremuetarako balio duen formatua honako hau da: # # # # #, hau da, EZ du onartzen puntua eta/edo koma bezalako karaktererik.

Erakunde eskatzaileari/partzuergo buruaren inguruko beste datu batzuk

Euskal Autonomia Erkidegoko bazkideen kopurua:

Emakumeak *	Gizonak *	Ez-bitarrak *	Guztira *
-------------	-----------	---------------	-----------

Euskal Autonomia Erkidegoko boluntarioen kopurua:

Emakumeak *	Gizonak *	Ez-bitarrak *	Guztira *
-------------	-----------	---------------	-----------

Euskal Autonomia Erkidegoan kontratatutako pertsona kopurua:

Emakumeak *	Gizonak *	Ez-bitarrak *	Guztira *
-------------	-----------	---------------	-----------

Tokian bertan kontratatutako pertsona kopurua:

Emakumeak *	Gizonak *	Ez-bitarrak *	Guztira *
-------------	-----------	---------------	-----------

Erakunde eskatzailea/partzuergo burua honi atxikita dago (idatzi Euskal Autonomia Erkidegoko garapenerako lankidetzako koordinakundearen edo sarearen izen osoa; jokabide-kode bat eduki behar du, eta erakundeak ez du jarraipen-batzordeak zehatuta egon behar):

Erakunde eskatzaileak/partzuergo buruak badauka genero-ekitatearen aldeko plan bat:
 Bai Ez

Adierazi Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

[DOK] Espediente-zk.: Aurkezpen-data:

Tokiko bazkidearen/partzuergo buruaren inguruko beste datu batzuk

Tokiko erakundeak edo partzuergoko bazkideetako batek badauka genero-politika bat:

- Bai Ez

Partzuergoa bada, identifikatu zer erakunderi dagokion: *

Adierazi Politikaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

[DOK] Espediente-zk.:

Aurkezpen-data:

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Erakunde eskatzaileak adierazten du laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa duela; eskatzen zaionean Administrazioaren eskura jarriko duela; konpromisoa hartzen duela baldintza horiek betetzen jarraitzeko, eskubidea aitortzen zaion aldia; funtsezko zehaztasunik ezak, faltsutasunak edo omisioak erantzukizun penal, zibil edo administratiboak ekar ditzakeela, eta Administrazioak egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak esleituta dituela.

Erakunde eskatzailearen/partzuergo buruaren erantzukizunpeko adierazpenak

1. Xede eta helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatu edo jaso izana, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik.

- Ez
 Bai, kasu honetan, sartu datuak taulan. Informazio horrek bat etorri behar du eskabide honen aurrekontu-taulan ematen denarekin eta partiden arabera banakatutako aurrekontuarekin (ezarritako ereduaren arabera erantsi behar da).

Erakundea	Zenbatekoa	Egoera: eskatua edo lortua

2. Sartuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta haren sektore publikoko beste erakunde batzuek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean.

- Ez
 Bai, kasu honetan, sartu datuak taulan

Prozedura / Kudeaketa instantzia

Prozedura	Kudeaketa-instantzia

3. Ez dauka Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako debekurik, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13 artikuluan.

4. Ez dago laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin administratiboki edo penalki zigortuta; eta ez dago horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1.h) artikulua arabera, edo LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatzeagatik, baita konbertsio-terapiak sustatu edo egiteagatik ere, Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

- 5. Egunean ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoaren arabera. Agindu hori zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeari buruzkoa da, bai eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoa ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan. Halaber, hitzematzen du betebeharrak betetzen jarraituko duela emandako laguntza edo dirulaguntza osoa justifikatu arte.
- 6. Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan aurreikusitako egoera eta kasuetako batean ere ez dago.

AKREDITAZIOAK

Erakunde eskatzaileak/partzuergo buruak ofiziozko egiaztapenen baterako baimenik ematen ez badu, egokia den dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak erakunde eskatzaileari/partzuergoko buruari buruzko datu hauek egiaztatuko ditu ofizioz administrazio eskudunean:

Legezko ordezkariaren egiaztapena

□ Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak baimena ematen dio deialdi hau kudeatzen duen organoari administrazio eskudunean egiaztatzeko, ziurtatzeko edo baieztatzeko, bitarteko telematikoen bidez edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bitartekoen bidez, legezko ordezkariaren egiaztapena.

Erregistro-inskripzioaren egiaztapena

□ Erakunde eskatzaileak/partzuergo buruak deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen dio egokia den erregistro inskripzioaren egiaztapena administrazio eskudunean egiaztatzeko, frogatzeko edo ziurtatzeko, bide telematikoz edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bidez.

Estatutuetan jasotako xedeetako bat Hegoaldeko herrialde txirotuak garatzeko proiektuak egitea dela egiaztatzea

□ Erakunde eskatzaileak/partzuergo buruak deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen dio administrazio eskudunean egiaztatzeko, frogatzeko edo ziurtatzeko egokia den erregistroan erregistratuta dauden erakunde eskatzailearen estatutuetan berriaz jasotzen dela haren xedeetako bat Hegoaldeko herrialde txirotuak garatzeko proiektuak egitea dela, bide telematikoz edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bidez. Bestela, dokumentuen bidez egiaztatu behar da erakundeak gutxienez bi urte daramatzala etengabe eremu horretan lan egiten. Horretarako, dagokion informazioa «Erakunde eskatzaileari buruzko eranskinetan» erantsi beharko du.

Egoitza zentrala edo ordezkari iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoan daukala egiaztatzea

□ Erakunde eskatzaileak/partzuergo buruak deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen dio administrazio eskudunean egiaztatzeko, frogatzeko edo ziurtatzeko erakunde eskatzaileak/partzuergo buruak egoitza nagusia edo ordezkari iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoan daukala, bide telematikoz edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bidez.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeari atxikita dagoela egiaztatzea

□ Erakunde eskatzaileak/partzuergo burua Euskadiko GGKEen Koordinakundeari atxikita badago, deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen dio Euskadiko GGKEen Koordinakundeari atxikipen hori egiaztatzeko, frogatzeko edo ziurtatzeko, erakunde eskatzaileak/partzuergo burua jokabide-kode bat daukan garapenerako lankidetzako koordinakunde bati atxikita dagoela eta erakundearen jarraipen-batzordeak zehatuta ez dagoela egiaztatzeko asmoz.

Datuak babesteari buruzko oinarrizko informazioa

Eskaeran jasotako datu pertsonalak Garapenerako Lankidetzarako Laguntzak eta Dirulaguntzak izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira.

- **Arduraduna:** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.
- **Helburua:** GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ARLOKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN, DIRULAGUNTZEN ETA BEKEN KUDEAKETA.
- **Legitimazioa:**
 - Interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz gauzatutako misio bat betetzeko beharrezkoa den tratamendua.
- **Hartzaileak:**
 - Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa.
 - Gizarte Segurantzaren organismoak.
 - KOOPERANTEEN ETA BEKADUNEN IZEN-ABIZENAK EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN ARGITARATUKO DIRA.
- **Eskubideak:** datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea daukazu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubideak ere.
- **Informazio gehigarria:** datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehatua gure web-orrian (www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/019500-cap2-es.shtml) kontsulta dezakezu.

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).
3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).

ERANTSI DOKUMENTAZIOA**Eskatutako dokumentu mota**

Eskatutako dokumentuak	Ekintzak
Proposamen teknikoa	Erantsi/Bilatu/Entregatua
Aurrekontua	Erantsi/Bilatu/Entregatua
Bideragarritasunari eta iraunkortasunari buruzko eranskinak	Erantsi/Bilatu/Entregatua
(Hala badagokio) Atzerriratutako langilearen argibide-memoria	Erantsi/Bilatu/Entregatua
(Hala badagokio) Proformako fakturak	Erantsi/Bilatu/Entregatua
(Hala badagokio) Balorizazioak	Erantsi/Bilatu/Entregatua
(Hala badagokio) Ordainagiriaren erabilerari buruzko memoria	Erantsi/Bilatu/Entregatua
(Hala badagokio) Errotazio-funtsaren azalpen memoria	Erantsi/Bilatu/Entregatua
Batez besteko soldataren egiaztagiria	Erantsi/Bilatu/Entregatua
Erakunde eskatzaileari buruzko eranskinak	Erantsi/Bilatu/Entregatua
Partzuergoko erakunde eskatzaileei buruzko eranskinak	Erantsi/Bilatu/Entregatua
(Hala badagokio) Lankidetzeta-jarduera egiaztatze dokumentazioa	Erantsi/Bilatu/Entregatua
Erakunde eskatzaileen partzuergoaren hitzarmena	Erantsi/Bilatu/Entregatua
Tokiko erakundeari buruzko eranskinak	Erantsi/Bilatu/Entregatua
Partzuergoko tokiko erakundeei buruzko eranskinak	Erantsi/Bilatu/Entregatua
Tokiko erakundearen partzuergoaren hitzarmena	Erantsi/Bilatu/Entregatua
Legezko ordezkaritza	Erantsi/Bilatu/Entregatua
Beste agiri batzuk	Erantsi/Bilatu/Entregatua

2024ko apirilaren 8a, astelehena

PRODUKZIO-GARAPENeko, PRESTAKUNTZAKO ETA LAGUNTZA TEKNOLOGIKOKO
PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK (K2)

I. eranskin hau eskabide normalizatuaren edukiari publikotasuna emateko bakarrik eranstean zaio deialdi-aginduari. Produkzio-garapeneko, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntza bat (K2) eskatu nahi duen erakundeak ez du eranskin hau erantsi behar; aitzitik, telematikoki bete beharko du, www.euskadi.eus webgunearen «Laguntzak eta dirulaguntzak» atalean.

Izartxoaz (*) markatutako eremuak nahitaezkoak dira

Norentzat:

Erakundea: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

Instrukzio-organoa: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARITZA

DATU PERTSONALAK**Eskatzailea:****Honela dihardu:** Espedientean interesdun den pertsona/erakundea: Honen ordezkaria:

 - 2 puntu, proiektua behar bezala inplementatzeko baliabide metodologikoak, teknikoak eta instituzionalak badirela frogatzen bada, baina horietako batzuetan gabeziak daudela identifikatzen bada.
- Puntu 1, ezarritako kronograma Esparru Logikoaren Matrizarekin (ELM) eta aurkeztutako proposamenarekin bat badator.

¹ Gogorarazten da, Garapenerako Lankidetzaren Funtsekin kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 6.2.c) artikulua araberan (uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatua), ez direla onartuko adierazle ebaluagarriak ez duten proiektuak.

- Gehienez 3 puntu, proiektua behar bezala inplementatzeko giza baliabide nahikoak daudela frogatzen bada.
 - 3 puntu, proiektua behar bezala ezartzeko giza baliabide egokiak daudela eta erantzukizunak eta funtzioak argi banatzen direla frogatzen bada.
 - Puntu 1, proiektua behar bezala ezartzeko giza baliabide egokiak daudela frogatzen bada, baina erantzukizunen eta funtzioen banaketa argia ez bada.
- Gehienez 2 puntu, ekimena bat badator erakunde eskatzailearen eta tokiko erakundearen indarreko plangintza estrategikoarekin.
 - Puntu 1, ekimena erakunde eskatzailearen indarreko plangintza estrategikoarekin bat badator eta formularioan azalduta badago.
 - Puntu 1, ekimena toki-erakundearen indarreko plangintza estrategikoarekin bat badator eta formularioan azalduta badago.
- Gehienez 2 puntu: ebaluazioa.
 - 2 puntu, kanpo-ebaluazioa egitea aurreikusten bada eta aurrekontuan islatuta badago.
 - Puntu 1, barne-ebaluazio espazioak edo ebaluazio mistoa egiteko espazioak ezartzea aurreikusten bada.

1.4.– Denboran eustea: gehienez 3 puntu².

- 3 puntu, proiektua amaitu ondoren emaitzak eta helburua mantenduko direla aurreikusten bada.
- Puntu 1, proiektua bukatutakoan proiektuaren helburuari eta emaitzei denboran eusten lagunduko dieten gaitasun, sare edo harremanak ezarrita utziko direla aurreikusten bada.

II.– PROIEKTUAREN ZEHARKAKO IKUSPEGIEN ARABERA: 34 PUNTU.

2.1.– Zeharkakoa: genero-ikuspegia sartzeara, eta gizonen eta emakumeen arteko egoera eta posizio desberdinak eraldatzea: gehienez 7 puntu.

- Diagnostikoa: Puntu 1, xede-biztanleriaren genero-harremanen azterketa egina badago, gaian, lurraldean eta esku-hartze zehatzean oinarrituta.
- Esparru Logikoaren Matritzea (EML): gehienez 2 puntu.
 - 2 puntu, ELMan emakumeak ahalduzera eta/edo desberdintasun-arrakalak murriztera bideratutako helburu eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira Generoa Garapenean ikuspegiaren barruan.

² Gogorarazten da, Garapenerako Lankidetzaren Funttsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 6.2.e) artikulua araberan (uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatua), ez direla onartuko denboran jasagarriak ez diren proiektuak.

- Puntu 1, ELMan emakumeen bizi-baldintzak hobetzera bideratutako helburuak eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira, Emakumeak Garapenean ikuspegiaren barruan.
- Bideragarritasuna: gehienez 3 puntu.
 - Puntu 1, planteatutako metodologia egokia bada emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeke.
 - Puntu 1, giza baliabideak, baliabide teknikoak, materialak eta instituzionalak egokiak badira emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeke eta/edo emakumeak ahalduntzeke.
 - Puntu 1, proiektuko ekintzetan emakumeen parte-hartze aktiboa bermatzeko neurri espezifikoak sartzen badira.
- Estrategia: puntu 1, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizteko estrategia integrala proposatzen bada.

2.2.– Zeharkakoa: tokiko gaitasunak indartzea: gehienez 7 puntu.

- Diagnostikoa: puntu 1, proiektuaren xede diren biztanleen eta/edo haien erakundeen gaitasunei buruzko diagnostiko zehatza eta espezifikoak badago.
- Esparru Logikoaren Matrizea: gehienez 2 puntu.
 - 2 puntu, ELMan gaitasun estrategiko-politikoak indartzeko helburu eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira.
 - Puntu 1, ELMan gaitasun teknikoak indartzeko helburu eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira.
- Bideragarritasuna: gehienez 3 puntu.
 - Puntu 1, planteatutako metodologia estrategia abian jartzera eta gaitasunak (teknikoak eta/edo estrategikoak, politikoak) sendotzera bideratzen bada.
 - Puntu 1, giza baliabideak eta baliabide tekniko, material eta instituzionalak egokiak badira tokiko gaitasunetan aurrera egiteko (gaitasun tekniko eta/edo estrategiko politikoak).
 - Puntu 1, banakatutako aurrekontuan zehazten badira gaitasunak indartzeko (teknikoak edota estrategikoak, politikoak) giza baliabide, eta baliabide tekniko eta material espezifiko horiek.
- Estrategia: puntu 1, xede-biztanleriaren tokiko gaitasunak sortzeko estrategia integrala proposatzen bada.

2.3.– Zeharkakoa: parte-hartze prozesuak sortzea: gehienez 5 puntu.

- Diagnostikoa: puntu 1, xede-biztanleriak (aniztasunetik abiatuta) lehendik dauden erabakiguneetan zenbateko parte-hartzea duen aztertzen duen azterketa zehatza eta espezifikoak baldin badago, eta betiere honako bi alderdi hauetatik bat, gutxienez, biltzen badu:
 - a) esku-hartze eremuan (instituzionala, publikoa, tradizionala, alternatiboa eta abar), lehendik dauden parte-hartzeke eta/edo erabakiak hartzeke espazioen azterketa.

b) xede-biztanleriaren eta/edo elkarte komunitarioen parte-hartzeko eta/edo erabakiak hartzeko espazioen azterketa.

- Esparru logikoaren matrizea: gehienez 3 puntu.
 - Puntu 1, erabakiak hartzeko guneetan xede-biztanleriaren parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa hobetuko duten helburu eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira.
 - Puntu 1, xede-biztanleriak erabakiak hartzeko guneetan parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa izateko jarduera zehatzak definitzen badira.
 - Puntu gehigarri 1, xede-biztanleriaren barnean dauden kolektibo ikusezinen parte-hartze aktiboa bermatzeko neurri zehatzak barneratzen badira.
- Estrategia: puntu 1, estrategia integrala proposatzen bada xede-biztanleriak ordezkartzeko eta erabakitzeko instantzia estrategikoetan parte har dezan.

2.4.– Zeharkakoa: elkarte indartzea: gehienez 5 puntu.

- Diagnostikoa: puntu 1, proiektuaren esku-hartze eremuan dauden erakunde eta elkarte-sareei buruzko azterketa zehatz eta espezifikoa baldin badago.
- Esparru Logikoaren Matrizea: gehienez 3 puntu.
 - Puntu 1, erakundeak sustatzeko helburu eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira.
 - Puntu 1, erakundeak indartzeko jarduera zehatzak planteatzen badira.
 - Beste puntu 1, eskualdean eta globalki agenda global baten inguruan egituratzeko jarduerak izanez gero.
- Estrategia: puntu 1, estrategia integrala proposatzen bada elkarte eta/edo elkarteak indartzearren.

2.5.– Zeharkakoa: eskubideen ikuspegia: gehienez 5 puntu.

- Diagnostikoa: gehienez 2 puntu.
 - 2 puntu, honako atal hauek barne hartzen dituen azterketa bat badago: a) proiektuan landuko d(ir)en eskubide(ar)en egoerari buruzko azterketa; b) proiektuan landuko d(ir)en eskubideari/eskubideei buruzko tokiko-nazioko-eskualdeko-nazioarteko legeriaren azterketa; c) eskubideen titularren eta betebeharren titularren identifikazioa, baita haien gaitasunena ere.
 - Puntu 1, aipatutako ataletatik gutxienez 2 barnean hartzen baditu.
- Esparru Logikoaren Matrizea: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, eskubideen titularren (defentsa eta galdagarritasuna) eta/edo betebeharren titularren (errespetua, babesa eta sustapena) gaitasunak indartzeko dituzten helburu eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira.
 - Puntu 1, eskubideen titularren eta/edo betebeharren titularren gaitasunak indartzeko jarduera zehatzak definitzen badira.

- Estrategia: puntu 1, estrategia integrala proposatzen bada eskubideen titularrak galdagarritasunean indartzeko eta/edo betebeharren titularrak betetze horren bermean indartzeko.

2.6.– Zeharkakoa: jasangarritasun ekologikoa: gehienez 5 puntu.

- Diagnostikoa: puntu 1, xede-biztanleriaren ingurunearen ingurumen-egoerari buruzko azterketa zehatza badago.
- Esparru Logikoaren Matrizea: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, jasangarritasun ekologikoaren aldeko helburu eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira.
 - Puntu 1, jasangarritasun ekologikoaren aldeko jardura zehatzak definitzen badira.
- Estrategia: puntu 1, ingurunearen ingurumen-egoera hobetuko duen estrategia integral bat planteatzen bada.
- Puntu 1, proiektuko jardueren eragin negatiboa prebenitzeko eta arintzeko neurriak badaude.

III.– EUSKAL ERAKUNDE ESKATZAILEAREKIN EDO EAEKO ORDEZKARITZAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK: 9 PUNTU.

3.1.– Oinarri soziala: gehienez 3 puntu (partzuergo burua).

- Puntu 1, EAEn 200 bazkide baino gehiago baditu.
- Puntu 1, EAEn 10 bazkide baino gehiago baditu.
- Puntu 1, EAEko lankidetzaren arloko koordinakunde edo sare batean parte hartzen badu, betiere erakunde horrek jokabide-kodea badu eta dagokion jarraipen-batzordeak zigorrik ezarri ez badio.

3.2.– Esperientzia: gehienez 2 puntu (partzuergo burua).

- 2 puntu, baldin eta proiektuaren gaian proiektu bi gauzatzeko finantzaketa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2019-2023).
- Puntu 1, baldin eta proiektuaren gaian proiektu bat gauzatzeko finantzaketa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2022-2023).

3.3.– Erakunde eskatzailearen eta tokikoaren arteko aurreko harremana: gehienez 2 puntu (partzuergo burua).

- 2 puntu, baldin eta euskal erakundeak tokiko-erakundearekin bi proiektu gauzatzeko finantzaketa lortu badu deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2019-2023).
- Puntu 1, baldin eta euskal erakundeak tokiko-erakundearekin proiektu bat gauzatzeko finantzaketa lortu badu deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2022-2023).

3.4.– Genero-ikuspegia erakunde-arloan sartzea: puntu 1 (partzuergo burua).

- Puntu 1, erakundeak genero-ekitatearen aldeko indarreko ekintza-plan estrategikoa badu.

3.5.– **Erakunde eskatzaileen arteko partzuergoa:** puntu 1, proiektua parte-hartze esanguratsua duten erakunde eskatzaileen partzuergo batek gauzatzen badu.

IV.– TOKIKO ERAKUNDEAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK³: 9 PUNTU.

4.1.– **Esperientzia: gehienez 3 puntu (partzuergoko onena).**

- 3 puntu, baldin eta proiektuaren gaiari hiru proiektu gauzatzeko finantzaketa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2019-2023).
- Puntu 1, baldin eta proiektuaren gaiari proiektu bat gauzatzeko finantzaketa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2022-2023).

4.2.– **Tokiko erakundearen harremana xede-biztanleriarekin: gehienez 3 puntu (partzuergoko onena).**

- 3 puntu, toki-erakundeak egiaztatzen badu proiektuaren xede den biztanleriarekin hiru proiektu gauzatzeko finantzaketa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2019-2023).
- Puntu 1, toki-erakundeak egiaztatzen badu proiektuaren xede den biztanleriarekin proiektu bat gauzatzeko finantzaketa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2022-2023).

4.3.– **Genero-ikuspegia erakunde-arloan sartzea: gehienez 2 puntu (partzuergoko onena).**

- Puntu 1, tokiko erakundeak indarreko genero-politika bat badu.
- Puntu 1, erakundea erakunde feminista bada.

4.4.– **Tokiko erakundearen arteko partzuergoa:** puntu 1, proiektua parte-hartze esanguratsua duten erakunde eskatzaileen partzuergo batek gauzatzen badu.

³ Tokiko bi erakunderen edo gehiagoren partzuergoaren kasuan, atal bakoitzean puntuazio handiena lortzen duen tokiko erakundea hartuko da kontuan.

B) PRODUKZIO-GARAPENKO, PRESTAKUNTZAKO ETA LAGUNTZA TEKNOLOGIKOKO PROIEKTUAK (II. KAPITULUA).**I.– PROIEKTUAREN EDUKIEN ARABERA: 49 PUNTU.****1.1. – Proiektuaren bidezotasuna eta egokitasuna Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian indarrean dagoen lankidetz-plangintzen esparruari dagokionez eta txertatzen den testuinguruari dagokionez: gehienez 22 puntu.**

- Gehienez 3 puntu, ekimena egokia bada dagokion testuinguruaren analisiari dagokionez, eta diagnostikoan identifikatutako premiei erantzuten badie.
 - Puntu 1, xede-biztanleriaren pobrezia- eta desberdintasun-egoeraren egiturazko azterketa eta/edo interpretazio nahikoa badu.
 - Puntu 1, analisiak xede-biztanleriaren gaiari eta kokapen geografikoari buruzko datu espezifikoak baditu.
 - Puntu 1, proiektuaren xede diren tokiko erronka eta arazoen dinamika globalekin duten konexioaren azterketa kritikoa egiten baldin badu.
- 2 puntu, xede-biztanleriak identifikazio-prozesuan parte-hartze aktiboa izan badu eta, hala badagokio, tokiko erakunde bazkideak gidatu badu prozesu hori.
- Gehienez 3 puntu, xede-populazioari dagokionez.
 - Puntu 1, identifikatutako xede-biztanleria, eta bere hautaketa, justifikatuta badaude.
 - Puntu 1, xede-biztanleriak ahalmen biderkatzailea badu.
 - Beste puntu 1, ikusezin eta/edo minorizatutako kolektiboak modu esanguratsuan txertatzen badira proiektuan.
- 2 puntu, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia alde aurretik lagundutako prozesu bat baldin bada, prozesuaren jarraipena egokitzat jotzen bada eta formularioan behar beste justifikatzen bada.
- Gehienez 12 puntu, esku-hartzea estrategikoa eta egokia bada Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian indarrean dagoen garapenerako lankidetz-plangintzen esparruan ezarritako lehentasunen arabera.
 - 2 puntu, proiektua bi sektore hauetako batean kokatzen bada: emakumeen ahalduntzea eta giza eskubideen defendatzaileen babesa.
 - Gehienez 4 puntu, esku-hartzeak Afrikarekin zerikusia badu:
 - 4 puntu, proiektua Afrikan gauzatzen bada.
 - 2 puntu, proiektuak Afrikarekin eta/edo Afrikako pertsonen erakundeekin artikulazio esanguratsuak sortzen baditu.
 - 2 puntu, ekimena testuinguruari dagokionez bidezkoa, estrategikoa eta egokia dela frogatzen bada.

- Gehienez 2 puntu, esku-hartzeak dinamika lokalak eta globalak lotzeko bidean aurrera egiten badu.
 - Puntu 1, xede-biztanleriak testuinguru lokala eta globala kritikoki interpretatzeko duen gaitasuna garatzea ahalbidetzen duten jarduerak planteatzen badira.
 - Puntu 1, proposatutako jardueren xedea bada hainbat eragileren artean sareak sustatzea eta agenda global baten inguruan eskualde/mundu mailako egituratzea egitea, esperientziak partekatzea eta lankidetzak espezifikoki zehaztea ahalbidetuko duten espazioak sortzeko.
- 2 puntu, proiektuak erantzunkidetasuna sustatzen badu, lankidetzaren arloan tradizionalak ez diren Euskadiko eragileak modu esanguratsuan mugiarazita.

1.2.– Proiektuaren koherentzia orokorra: gehienez 11 puntu.

- 2 puntu, esku-hartzearen logika deskribatuta badago eta hautatutako esku hartzeko estrategia justifikatzen badu.
- Gehienez 3 puntu, esku-hartzearen logika koherentea baldin bada.
 - 3 puntu, esku-hartzearen logikak helburu espezifikoa lortzeko behar diren jarduerak guztiak barneratzen baditu, eta beharrezkoak diren jarduerak guztiak definituta badaude.
 - Puntu 1, esku-hartzearen logika koherentea bada, baina helburu espezifikoa lortzeko behar diren emaitzetako bat ez badu edo helburu hori lortzeko beharrezkoak ez diren emaitzak sartzen badira.
- Gehienez 3 puntu, jardueren eta horiek ezartzeko baliabideen artean koherentzia badago.
 - 2 puntu, baldin eta lotura koherentea badago jardueren, bitartekoen eta kostuen, eta elementu horiek aurrekontuan biltzeko moduen artean.
 - Puntu 1, jarduerak aurrekontura behar bezala eramaten ez badira, edo esku-hartzearen logikarako beharrezkoak ez diren atalak badaude.
 - Beste puntu 1, ekonomia sozial eta solidarioko baliabideak erabiltzen badira.
- Gehienez 3 puntu, adierazle zehatzak, neurgarriak eta egiaztagarriak formulatzen badira⁴.
 - 3 puntu, baldin eta helburu espezifikorekiko eta espero diren emaitzekiko adierazle egokiak ezartzen badira; beharrezkoa izango da gutxienez genero-eraginarekin lotutako adierazleren bat jasotzea.
 - 2 puntu, baldin eta helburu espezifikorekiko edo espero diren emaitzekiko ezarritako adierazleetan zenbait gabezia badaude, eta gutxienez genero-eraginarekin lotutako adierazleren bat jasotzen bada.

⁴ Gogorarazten da, Garapenerako Lankidetzaren Funtsekin kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren (uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatua) 6.2.c) artikularekin harremana duen 12.1 artikularen arabera, ez direla onartuko adierazle ebaluagarriak ez duten proiektuak.

- Puntu 1, adierazle egokiak ezartzen badira soilik emaitzaren baterako edo genero-eraginarekin lotutako adierazlerik jasotzen ez bada.

1.3.– Bideragarritasuna: gehienez 13 puntu.

- Gehienez 2 puntu, proiektua behar bezala ezartzeko baliabide metodologikoak, teknikoak eta instituzionalak daudela frogatzen bada.
 - 2 puntu, proiektua behar bezala ezartzeko baliabide teknikoak eta instituzionalak daudela frogatzen bada.
 - Puntu 1, proiektua behar bezala implementatzeko baliabide metodologikoak, teknikoak eta instituzionalak badirela frogatzen bada, baina horietako batzuetan gabeziak daudela identifikatzen bada.
- Gehienez 3 puntu, proiektua behar bezala implementatzeko baliabide metodologikoak daudela frogatzen bada.
 - Puntu 1, xede-biztanleriarekiko egokitzapen metodologikoa badago.
 - Puntu 1, aurreikusitako jardueretikiko egokitzapen metodologikoa badago.
 - Puntu 1, planteatutako metodologia egokia bada komunikazio horizontala sustatzeko eta jakintzaren dekolonialtasuna sustatzeko.
- Puntu 1, ezarritako kronograma Esparru Logikoaren Matrisearekin eta aurkeztutako proposamenarekin bat badator
- Gehienez 3 puntu, proiektua behar bezala implementatzeko giza baliabide nahikoak daudela frogatzen bada, bai Euskadin bai lurraldeetan.
 - 3 puntu, giza baliabideek proiektua behar bezala ezartzeko gaitasun nahikoa dutela eta erantzukizunak eta funtzioak argi banatzen direla frogatzen bada.
 - Puntu 1, proiektua behar bezala ezartzeko giza baliabide egokiak daudela frogatzen bada, baina erantzukizunen eta funtzioen banaketa argia ez bada.
- Gehienez 2 puntu, ekimena erakunde eskatzailearen eta, hala badagokio, tokiko erakunde bazkidearen indarreko plangintza estrategikoarekin bat badator.
 - Puntu 1, ekimena erakunde eskatzailearen indarreko plangintza estrategikoarekin bat badator eta formularioan azalduta badago.
 - Puntu 1, ekimena tokiko erakunde bazkideak indarrean duen plangintza estrategikoarekin bat badator eta formularioan azalduta badago.
- Gehienez 2 puntu: etengabeko ikaskuntza.
 - Puntu 1, egindako jarduerak jakinaraztea eta xedeen eta adierazleen jarraipena egitea planteatzen bada, aurrerapen eta zailtasunei dagokienez, xede-biztanleriarekin.

- Puntu 1, ebaluazioen edo sistematizazioen bidez ikaskuntzak sortzeko espazioen eta uneen aurreikuspena badago eta sortutako ikaskuntzen komunikazio- eta hedapen-estrategia bat badago.

1.4.– Denboran eustea: gehienez 3 puntu⁵.

- 3 puntu, proiektua amaitu ondoren emaitzak eta helburua mantenduko direla aurreikusten bada.
- Puntu 1, proiektua bukatutakoan proiektuaren helburuari eta emaitzei denboran eusten lagunduko dieten gaitasun, sare edo harremanak ezarrita utziko direla aurreikusten bada.

II. – PROIEKTUAREN ZEHARKAKO IKUSPEGIEN ARABERA: 33 PUNTU.

2.1.– Zeharkakoa: genero-ikuspegia sartzea, eta gizonen eta emakumeen arteko egoera eta posizio desberdinak eraldatzea: gehienez 7 puntu.

- Diagnostikoa: Puntu 1, xede-biztanleriaren genero-harremanen azterketa egina badago, gaian, lurraldean eta esku-hartze zehatzean oinarrituta.
- Esparru Logikoaren Matrizea (ELM): gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, ELMan sexu- eta/edo genero-desberdintasunen arrakala murrizten laguntzen duten emaitza eta/edo jarduera esanguratsuak badaude.
 - Puntu 1, ELMan genero-ikuspegia txertatzen laguntzen duten emaitza eta/edo jarduera esanguratsuak badaude.
- Bideragarritasuna: gehienez 3 puntu.
 - Puntu 1, planteatutako metodologia egokia bada emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko.
 - Puntu 1, giza baliabideak, baliabide teknikoak, materialak eta instituzionalak egokiak badira emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko eta/edo emakumeak ahalduntzeko.
 - Puntu 1, proiektuko ekintzetan emakumeen parte-hartze aktiboa bermatzeko neurri espezifikoak sartzen badira.
- Estrategia: puntu 1, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizteko estrategia integrala proposatzen bada.

2.2.– Zeharkakoa: tokiko gaitasunak indartzea: gehienez 10 puntu.

- Diagnostikoa: gehienez 2 puntu, proiektuaren xede diren biztanleen eta/edo haien erakundeen gaitasunei eta kalteberatasunei buruzko diagnostiko zehatza eta espezifiko badago.
 - 2 puntu, xede-biztanleriaren gaitasunak eta ahuleziak modu zehatzean eta espezifikoan identifikatzen badira, eta analisia xede-populazioa osatzen duten pertsona-talde/-tipologiaren arabera zehazten bada.

⁵ Gogorazten da, Garapenerako Lankidetzaren Funtzaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren (uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatua) 6.2.e) artikularekin harremana duen 12.1 artikularen arabera, ez direla onartuko denboran jasagarriak ez diren proiektuak.

- Puntu 1, xede-biztanleriaren gaitasunak eta ahuleziak identifikatzen badira, baina analisia ez bada behar bezain zehatza eta espezifiko.
- Esparru Logikoaren Matrizea: gehienez 2 puntu.
 - 2 puntu, ELMan gaitasun tekniko eta/edo estrategiko politikoak indartzeko helburu eta/edo emaitza zehatzak eta ondo definituak badaude.
 - Puntu 1, ELMan gaitasun tekniko eta/edo estrategiko politikoak indartzea helburu duten jarduerak ondo zehaztuta badaude.
- Bideragarritasuna: gehienez 4 puntu.
 - Puntu 1, planteatutako metodologia estrategia abian jartzera eta gaitasunak (teknikoak eta/edo estrategikoak, politikoak) sendotzera bideratzen bada.
 - Puntu 1, giza baliabideak eta baliabide teknikoak, materialak eta instituzionalak egokiak badira tokiko gaitasunetan aurrera egiteko (gaitasun tekniko eta/edo estrategikoak, politikoak).
 - Puntu 1, proiektuan parte hartzen duten hegoaldeko zein iparraldeko erakunde/instanzia gaitzaileak deskribatzen badira eta haiek proiektuaren garapenari egindako ekarpenak argudiatzen badira, metodologiari edo gaiari dagokionez.
 - Puntu 1, banakatutako aurrekontuan zehazten badira gaitasunak indartzeko (teknikoak edota estrategikoak, politikoak) giza baliabideak, eta baliabide tekniko eta material espezifiko horiek.
- Ahalmen biderkatzailea: puntu 1, ekimenaren esparruan indartutako gaitasunak praktikan jartzeko eta erantzuteko tresnak eta proposamenak ematen badira.
- Estrategia: puntu 1, xede-biztanleriaren gaitasunak sortzeko estrategia integral bat planteatzen bada.

2.3.– Zeharkakoa: parte-hartzeko prozesuak sortzea: gehienez 4 puntu.

- Diagnostikoa: puntu 1, xede-biztanleriak kide diren antolakunde/erakundeetan eta/edo beren erkidego/udalerrietan duen partaidetza-mailari buruzko azterketa zehatza eta espezifiko badago.
- Esparru Logikoaren Matrizea: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, erabakiak hartzeko guneetan xede-biztanleriaren parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa hobetuko duten helburu eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira.
 - Puntu 1, parte-hartze aktiboa sustatzen duten jarduerak planteatzen badira.
- Estrategia: puntu 1, estrategia integrala proposatzen bada xede-biztanleriak proiektuaren garapenaren fase guztietan parte har dezan.

2.4. – Zeharkakoa: erakundea indartzea: gehienez 4 puntu.

- Diagnostikoa: puntu 1, xede-biztanleriaren kokapen geografikoan dauden antolakundeei/erakundeei eta elkarte-ehunari buruzko azterketa zehatza eta espezifiko badago.

- Esparru Logikoaren Matrizea: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, elkarteak/erakundeak indartzeko helburuak eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira.
 - Puntu 1, elkarteak/erakundeak indartzeko jarduerak planteatzen badira.
- Estrategia: puntu 1, elkarte(k) eta/edo erakunde(k) indartzeko estrategia integrala planteatzen bada.

2.5.– Zeharkakoa: eskubideen ikuspegia: gehienez 4 puntu.

- Diagnostikoa: gehienez 2 puntu.
 - 2 puntu, honako atal hauek bilduko dituen azterketa bat badago: a) proiektuan landuko d(ir)en eskubide(ar)en egoerari buruzko azterketa; b) proiektuan landuko d(ir)en eskubideari/eskubideei buruzko tokiko-nazioko-eskualdeko-nazioarteko legeriaren azterketa; c) eskubideen titularren eta betebeharren titularren identifikazioa, baita haien gaitasunena ere.
 - Puntu 1, aipaturako ataletatik gutxienez 2 barnean hartzen baditu.
- Esparru Logikoaren Matrizea: puntu 1, helburu eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira eskubideen (defentsa eta galdagarritasuna) titularren eta/edo betebeharren (errespetua, babesa eta sustapena) titularren gaitasunak indartzearen.
- Estrategia: puntu 1, estrategia integrala proposatzen bada eskubideen titularrak galdagarritasunean indartzeko eta/edo betebeharren titularrak betetze horren bermean indartzeko.

2.6.– Zeharkakoa: jasangarritasun ekologikoa: gehienez 4 puntu.

- Diagnostikoa: puntu 1, xede-biztanleriaren ingurunearen ingurumen-egoerari buruzko azterketa zehatza badago.
- Esparru Logikoaren Matrizea: puntu 1, jarduera zehatzak definitzen badira jasangarritasun ekologikoaren alde.
- Estrategia: puntu 1, ingurunearen ingurumen-egoera hobetuko duen estrategia integral bat planteatzen bada.
- Puntu 1, proiektuko jardueren eragin negatiboa prebenitzeko eta arintzeko neurriak badaude.

III.– EUSKAL ERAKUNDE ESKATZAILEAREKIN EDO EUSKADIKO ORDEZKARITZAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK: 9 PUNTU.

3.1.– Esperientzia: gehienez 2 puntu (partzuergo burua).

- 2 puntu, baldin eta proiektuaren gaian proiektu bi gauzatzeko finantzaketa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2019-2023).
- Puntu 1, baldin eta proiektuaren gaian proiektu bat gauzatzeko finantzaketa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2022-2023).

3.2.– Erakunde eskatzailearen eta toki-erakundearen arteko baterako lan-esperientzia, halakorik badago: gehienez 3 puntu (partzuergoko burua).

- 2 puntu, baldin eta euskal erakundeak tokiko erakundearekin bi proiektu gauzatzeko finantzaketa lortu badu deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2019-2023).
- Puntu 1, baldin eta euskal erakundeak tokiko erakundearekin proiektu bat gauzatzeko finantzaketa lortu badu deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2022-2023).
- Beste puntu 1, konfiantzazko harremana, elkar ezagutzea eta baterako lanerako aukerak dituela egiaztatzen badu.

3.3.– Parte-hartzea eta lotura: puntu 1 (partzuergo burua).

- Puntu 1, proiektuarekin gaikako lotura duen nazioarteko koordinakunde, sare edo mugimenduren batean parte hartzen badu.

3.4.– Genero-ikuspegia erakunde-arloan sartzea: puntu 1 (partzuergoko burua).

- Puntu 1, erakunde eskatzaileak genero-berdintasuna lortzeko ekintza-plan estrategiko bat badu.

3.5.– Erakunde eskatzaileen arteko partzuergoa: gehienez 2 puntu.

- Puntu 1, proiektua partaidetza esanguratsua duten erakunde eskatzaileen partzuergo batek gauzatzen badu.
- Beste puntu 1, partzuergoan Euskadiko eragile ez-tradizional bat sartzen bada lankidetzaren arloan.

IV.– TOKIKO ERAKUNDE BAZKIDEAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK (hala badagokio)⁶: 9 PUNTU.

4.1.– Esperientzia: gehienez 3 puntu (partzuergoaren onena).

- 3 puntu, baldin eta proiektuaren gaian hiru proiektu gauzatzeko finantzaketa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2019-2023).
- Puntu 1, baldin eta proiektuaren gaian proiektu bat gauzatzeko finantzaketa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2022-2023).

4.2.– Tokiko erakunde bazkideak xede-biztanleriarekin batera izandako lan-esperientzia: gehienez 3 puntu (partzuergoaren onena).

- 3 puntu, toki-erakundeak egiaztatzen badu proiektuaren xede den biztanleriarekin hiru proiektu gauzatzeko finantzaketa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2019-2023).
- Puntu 1, toki-erakundeak egiaztatzen badu proiektuaren xede den biztanleriarekin proiektu bat gauzatzeko finantzaketa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2022-2023).

⁶ Tokiko bi erakunderen edo gehiagoren partzuergoaren kasuan, atal bakoitzean puntuazio handiena lortzen duen tokiko erakundea hartuko da kontuan.

4.3.– **Genero-ikuspegia erakunde-arloan sartzea:** gehienez 2 puntu (partzuergoaren onena).

- Puntu 1, tokiko erakunde bazkideak indarreko genero-politika badu.
- Puntu 1, tokiko erakunde bazkidea erakunde feminista bada.

4.4.– **Tokiko erakunde bazkideen arteko partzuergoa:** puntu 1, proiektua partaidetza esanguratsua duten erakundeen partzuergo batek gauzatzen badu.

C) GARAPENERAKO HEZKUNTZA PROIEKTUAK (III. KAPITULUA).

I.– PROIEKTUAREN EDUKIAK: GEHIENEZ 50 PUNTU.

1.1.- Egokitasuna: gehienez 22 puntu.

1.1.1.- Proiektuaren bidezotasuna eta egokitasuna Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian indarrean dagoen garapenerako lankidetz-plangintzen esparruari dagokionez eta (H)ABIAN 2030 aruari dagokionez: gehienez 13 puntu.

- Ekimena estrategikoa eta egokia bada, indarrean dagoen garapenerako lankidetz-plangintzen esparruaren arabera (gehienez 6 puntu).
 - 3 puntu, lehentasun sektorialak sustatzen laguntzen badu: emakumeen ahalduntzea edo giza eskubideen defendatzaileak babestea.
 - 2 puntu Afrikarekin edo Afrikako pertsonen erakundeekin artikulazioak sortzen baditu.
 - Puntu 1, lehentasunezko gaiak lantzen baditu: giza eskubideen babesa, sexu- eta genero-dibertsitatea, gatazkak eraldatzea eta bakegintza, ekonomia solidarioaren eredia, enpresak eta giza eskubideak, erosketak publiko arduratsua, komunikazio hezitzailea, hezkuntza inklusiboa, teknologia egokia eta ingurumena.
- Ekimena estrategikoa eta egokia bada (H)ABIAN 2030 aruaren arabera (gehienez 7 puntu).
 - 3 puntu, herritartasun global iraunkorreko eta ekitatiboko alternatibak eraiki nahi dituzten subjektuei laguntzen bazaie, kontzientzia hartzeko eta azterketa kritikoa egiteko prozesu baten bidez. Prozesuak ekintza zehatzetan gorpuztu behar du, alternatiba horiek eraikitzeko eta praktikan jartzeko inplikazioa lortze aldera.
 - 2 puntu, tradizionalak ez diren eragileak modu esanguratsuan sartzen badira: zentro teknologikoak, elkargo profesionalak, gizarte-mugimenduak (feminista, ekologista, internazionalista...), kultura-erakundeak, giza eskubideen erakundeak, sexu- eta ingurumen-aniztasuna, migratzaileen erakundeak, produkzio-sektore soziala eta unibertsitateak.
 - 2 puntu, hezkuntza-proposamenetan pedagogia kritikoak, parte-hartzaileak eta sozioafektiboak bultzatzen badira, baita hainbat ikuspegi ere: kulturartekoa, feminista eta bizitzaren jasangarritasunari dagokiona, aniztasunak kudeatzekoa, zapalkuntzen interseksionalitateari dagokiona.

1.1.2.- Egokia xede-biztanleriari dagokionez: gehienez 6 puntu.

- Puntu 1, desberdintasunaren kausen azterketa badu eta xede-biztanleriaren testuinguruaren azterketarekin lotzen bada.
- Puntu 1, xede-biztanleriarentzat egokia bada, haren gaitasunen eta kalteberatasunetatik abiatzen delako.
- Puntu 1, xede-biztanleria hautatzeko irizpide zehatzak baldin badaude.
- 2 puntu, gehienez, xede den populazioak ahalmen biderkatzailea badu:
 - Puntu 1, baldin eta pertsona hauekin lan egiten bada: irakasleak, komunikatzaileak, hezitzaileak eta lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako ikasleak.

- Puntu 1, biderkatzeko gaitasun hori garatzeko tresnak eta proposamenak emango bazaizkie.
- Puntu 1, proiektua hiriburuak ez diren 4 udalerritan, gutxienez, gauzatzen bada.

1.1.3.- Egokitasuna erakunde aliatuei dagokienez: gehienez 3 puntu.

- Puntu 1, proiektuaren garapenari egindako ekarpenak deskribatzen eta argudiatzen badira, metodologiari edo gaiari dagokionez.
- Puntu 1, gutxiengo bihurtutako kolektiboengana, egoera ahulean dauden kolektiboengana edo iristeko zailak diren kolektiboengana (dibertsitate funtzionala, sexuari, adinari, erlijioari, jatorriari edo kulturari... lotutako dibertsitatea) iristeko gaitasuna baldin badute.
- Puntu 1, biderkatzeko gaitasuna badute (proiektuaren irismena indartzeko dituzten mekanismoen eta bitartekoen berri ematen da).

1.2.- Koherentzia: gehienez 12 puntu.

1.2.1.- Proiektuaren koherentzia orokorra: gehienez 6 puntu.

- Gehienez 3 puntu, esku-hartzearen logika koherentea bada.
 - 3 puntu, esku-hartze logikak helburu espezifikoak lortzeko behar diren emaitza guztiak eta jarduera guztiak barneratzen baditu, eta jarduera horiek definituta badaude.
 - Puntu 1, esku-hartzearen logika koherentea bada, baina helburu espezifikoak lortzeko behar diren emaitzetako bat ez badu edo helburu hori lortzeko beharrezkoak ez diren emaitzak sartzen badira.
- Adierazle egokiak eta nahikoak: gehienez 3 puntu.
 - Puntu 1, oinarritzko lerroa baldin badu.
 - 2 puntu, aldaketa-adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak baldin baditu, zehatzak, neurgarriak eta egiaztagarriak⁷.
 - Puntu 1, hezkuntza-jardunbideetako aldaketekin lotuta baldin badaude, betiere proiektuaren proposamen metodologikoei jarraikiz.
 - Puntu 1, pertsonengan eta kolektiboengan aldaketak lortzearekin lotuta baldin badaude, dela ezagutzen sorreran eta aplikazioan, dela jarrera edo ohituretan.

1.2.2.- Koherentzia aurrekontuan eta kronograman: gehienez 3 puntu.

- Puntu 2, jardueren eta horiek egikaritzeko baliabideen artean koherentzia egonez gero.
- Puntu 1, ezarritako kronograma bat badator aurkeztutako proposamenarekin eta ELMarekin.

⁷ Gogorarazten da, Garapenerako Lankidetzaren Funttsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren (uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatua) 17.3 artikuluan eta 6.2.c) artikuluan arabera, ez direla onartuko adierazle ebaluagarriak ez duten proiektuak.

1.2.3.- Koherentzia eta lerrokadura plangintzekin: gehienez 3 puntu.

- Puntu 1, ekimena erakunde eskatzailearen indarreko plangintza estrategikoarekin bat badator eta lotura zehatza azaltzen bada formularioan.
- Puntu 1, proiektua Eusko Jaurlaritzaren indarreko plan sektorialen barruan badago (eskualde, probintzia eta/edo udal mailako planak/politikak) eta lotura zehatza azaltzen bada formularioan.
- Puntu 1, proiektua garapenerako nazioarteko agendaren barruan badago (erakundeen edo gizarte-mugimenduen agendan) eta lotura zehatza azaltzen bada formularioan.

1.3.- Bideragarritasuna: gehienez 13 puntu.

1.3.1.- Bideragarritasuna, lortu nahi diren aldaketei dagokienez: gehienez 2 puntu.

- Puntu 1, xede-biztanleriarengan lortu nahi diren aldaketa zehatzak eta aldaketaren kontakizuna aurkezten badira.
- Puntu 1, erakunde eskatzailearen, erakunde aliatuen edo xede-biztanleriaren hezkuntza-praktiketan edo hezkuntza-ikuspegian aldaketak planteatzen badira.

1.3.2.- Baliabideen bideragarritasuna: gehienez 3 puntu.

- Gehienez 2 puntu, proiektuan ezartzeko giza baliabide egokiak daudela frogatzen bada eta erantzukizunak eta funtzioak argi banatzen badira.
 - 2 puntu, proiektuan ezartzeko giza baliabide egokiak daudela frogatzen bada eta erantzukizunak eta funtzioak argi banatzen badira.
 - Puntu 1, proiektuan ezartzeko giza baliabide egokiak daudela frogatzen bada, baina erantzukizunen eta funtzioen banaketa argia ez bada.
- Puntu 1 proiektuan ezartzeko baliabide teknikoak eta instituzionalak daudela frogatzen bada.

1.3.3.- Bideragarritasun metodologikoa: gehienez 3 puntu.

- 2 puntu, xede-biztanleriarekiko egokitzapen metodologikoa badago.
- 1 puntu, aurreikusitako jardueretik egokitzapen metodologikoa badago.

1.3.4.- Bideragarritasuna etengabeko ikaskuntzari dagokionez: gehienez 5 puntu.

- Jarraipenerako eta etengabeko ikaskuntzarako mekanismoak aurreikusten dira: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, ekimenean egiten diren jarduketak xede-biztanleriari komunikatzea aurreikusten bada, aurrerabideari eta zailtasunei dagokienez, baita proposatutako xede eta adierazleen jarraipena egitea ere.
 - Puntu 1, proiektuan sortzen diren baliabideak eta ikaskuntzak komunikatzeko eta ezagutarazteko estrategia bat baldin badago eta sortutako baliabideen eskuragarritasuna aurreikusten bada (argitalpenak, materialak, etab.).

- Ikaskuntzak, ikasbideak eta hobekuntzak txertatzea proposatzen bada: gehienez 3 puntu.
 - 2 puntu, aurreko ekimenetatik eratorritako ondorioak, irakaspenak, hobekuntzak eta/edo aldaketak sartzen badira, ekintzetan, metodologietan edo lana antolatzeko dinamiketan.
 - Puntu 1, ebaluazioen edo sistematizazioen bidez ikaskuntzak sortzeko espazioak eta uneak aurreikusten badira.

1.4.- Denboran eustea⁸: gehienez 3 puntu.

- Gehienez 3 puntu, proiektua amaitu ondoren emaitzak eta helburua mantenduko direla aurreikusten bada.
 - 3 puntu, proiektua amaitu ondoren emaitzak eta helburua mantenduko direla aurreikusten bada.
 - Puntu 1, proiektua bukatutakoan proiektuaren helburuari eta emaitzei denboran eusten lagunduko dieten gaitasun, sare edo harremanak ezarrita utziko direla aurreikusten bada.

II.- ZEHARKAKO IKUSPEGIAK: GEHIENEZ 40 PUNTU.

2.1.- Tokiko-ikuspegi globala: gehienez 8 puntu.

- Diagnostikoa: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, proiektuaren tokiko gaiaren azterketa kritikoa eta egiturazkoa badago, testuinguru globalari dagokionez.
 - Puntu 1, xede-biztanleriak alternatiba tokiko-globalak egituratzeko dituen gaitasun eta ahulguneen azterketa baldin badago.
- Esparru Logikoaren Matrizean (EML) emaitzak, jarduerak eta/edo adierazle errealista eta neurgarriak txertatzea, betiere tokiko- global ikuspegia sustatzen dutenak: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, tokiko testuingurua eta testuinguru globala kritikoki interpretatzeko gaitasuna garatzea ahalbidetzen badute.
 - Puntu 1, tokikoan globaltasunarekin konektatuta jarduteko aukera ematen badute.
- Hegoalde global eta geografikoko kolektiboek parte-hartzeko eta aliantzak indartzeko estrategia: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, analisiak trukitzea sustatzen duten espazioak aurreikusten badira, eta estrategiak, artikulazioak edo aliantzak sustatzen badira agenda global baten esparruan, ikuspegi dekolonial batetik.

⁸ Gogorarazten da, Garapenerako Lankidetzaren Funtsekin kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren (uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatua) 17.3 artikulua eta 6.2.e) artikulua arabera, ez direla onartuko denboran iraunkorrak ez diren proiektuak.

- Puntu 1, Hegoalde globaleko eta geografikoko kolektiboek eta elkarteek parte hartzen badute.
- Zeharkakoa txertatzeko baliabide espezifikoak (ekonomikoak, giza baliabideak eta aliantzak): gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, baliabide ekonomiko eta giza baliabide nahikoak badaude.
 - Puntu 1, lotura lokal-globalerako aliantzetara zuzendutako baliabideak badaude.

2.2.- Generoa: gehienez 8 puntu.

- Diagnostikoa: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, genero-harremanen egoerari buruzko azterketa kritiko eta egiturazkoa baldin badago, tokiko mailan zein globalean.
 - Puntu 1, xede-biztanleriaren gaitasunak eta ahuleziak aztertzen badira, emakumeen ahalduzeari eta genero-desberdintasuneko arrakalak ezabatzeari dagokienez.
- Esparru Logikoaren Matrizean ekitatearen aldeko emaitzak, jarduera esanguratsuak eta/edo adierazleak: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, sexu- eta/edo genero-desberdintasunen arrakala murrizten laguntzen badute.
 - Puntu 1, baldin eta beren sexu-identitateagatik/generoagatik gutxitutako emakumeen edo kolektiboen ahalduzeari laguntzen badute.
- Ekitatea sustatzen duen estrategia: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, mugimendu feministak eta emakumeen elkarteek aktiboki parte hartzen badute eta/edo agenda feministaren alderdiak txertatzen badira.
 - Puntu 1, generoagatik edo bestelako askotariko identitateengatik (jatorria, ekonomia, sexua...) minorizatutako kolektiboen ikuspuntuak eta parte hartzea txertatzeko estrategiak baldin badaude.
- Zeharkako hori txertatzeko baliabide espezifikoak (ekonomikoak, giza baliabideak eta aliantzak) baldin badaude: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, baliabide ekonomiko eta giza baliabide nahikoak badaude.
 - Puntu 1, ikuspegi hori txertatzeko aliantzak lortzera bideratutako baliabideak baldin badaude.

2.3.- Parte-hartzea eta antolamendua: gehienez 8 puntu.

- Diagnostikoa: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, botere-harremanei, xede-biztanleriaren parte-hartzearen arrakalari eta antolamendurako potentzialtasunari dagokienez, testuinguruaren egoeraren azterketa kritikoa eta egiturazkoa egin bada.

- Puntu 1, alternatibak eraikitzeari dagokionez, xede-biztanleriak parte-hartzea sustatzeko eta antolamendurako dituen gaitasun eta ahulguneen azterketa baldin badago.
- Esparru Logikoaren Matrizean parte-hartzea/antolamendua sustatzen duten emaitzak, jarduera esanguratsuak eta/edo adierazleak: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, xede-biztanleriak modu aktiboan parte hartzeko dituen gaitasunak indartzeko lagungarri badira.
 - Puntu 1, oinarrizko erakundeek edo erakunde aliatuek proposamen alternatiboak sortzeko dituzten gaitasunak indartzeko lagungarri badira.
- Parte-hartzea eta/edo antolamendua sustatzeko estrategia: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, xede-biztanleriak proiektuaren jardun-eremuetan parte-hartzeko dituen mekanismoak deskribatzen badira: proiektuaren identifikazioa, diseinua, gauzatzea eta ebaluazioa.
 - Puntu 1, minorizatutako kolektiboek proiektuko jardueretan parte har dezaten sustatzeko mekanismo espezifikoak baldin badaude.
- Zeharkako hori txertatzeko baliabide espezifikoak (ekonomikoak, giza baliabideak) baldin badaude: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, parte-hartze aktiboa sustatzeko baliabide ekonomiko eta giza baliabide nahikoak badaude.
 - Puntu 1, erakundeak indartzeko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak badaude.

2.4.- Giza eskubideak: gehienez 8 puntu.

- Diagnostikoa: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, giza eskubideen egoerari buruzko azterketa kritiko eta egiturazkoa baldin badago.
 - Puntu 1, xede-biztanleriaren eta betebeharren titularren gaitasunen eta ahulguneen azterketa baldin badago, pertsona guztien giza eskubideak bete daitezten.
- Esparru Logikoaren Matrizean giza eskubideak bermatzeko, errespetatzeko eta sustatzeko gaitasunak indartzen laguntzen duten emaitzak, jarduerak eta/edo adierazleak txertatzea: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, giza eskubideen titularrek eskubide horien berri izateko eta beren eskaerak aldarrikatu ahal izateko gaitasunak indartzeko lagungarri badira.
 - Puntu 1, betebeharren titularrak indartzeko lagungarri badira, giza eskubide hauen bermatu, errespetatu eta sustatu ditzaten.

- Giza eskubideak defendatzeko eta bermatzeko estrategia baldin badago: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, proiektu osoan giza eskubideekin lotutako ekintza proposamenak eta gaiak lantzen badira.
 - Puntu 1, minorizatutako kolektiboen eskubide espezifikoaren defentsa eta bermea txertatzen bada eskubideen edo betebeharren titularrekin lan eginez.
- Zeharkako hori txertatzeko baliabide espezifikoak (ekonomikoak, giza baliabideak eta aliantzak) baldin badaude: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, baliabide ekonomiko eta giza baliabide nahikoak badaude.
 - Puntu 1, ikuspegi hori txertatzeko aliantzak lortzera bideratutako baliabideak baldin badaude.

2.5.- Jasangarritasun ekologikoa: gehienez 8 puntu.

- Diagnostikoa: gehienez 2 puntu
 - Puntu 1, ingurumenaren egoerari buruzko azterketa kritiko eta egiturazkoa baldin badago, tokiko mailan zein globalean.
 - Puntu 1, xede-biztanleriaren gaitasun eta ahulguneen azterketa baldin badago, jasangarritasun-ikuspegia bultzatzen duen parte-hartzea sustatze aldera.
- Esparru Logikoaren Matrizean jasangarritasun ekologikoaren aldeko emaitzak, jarduerak eta/edo adierazleak txertatzea: gehienez 2 puntu
 - Puntu 1, baliabide zehatzekin eta planifikazioarekin proiektuaren eta proposatutako ekintzen ingurumen-inpaktua identifikatzeko lagungarri badira.
 - Puntu 1, ingurunea modu jasangarrian kudeatzeko lagungarri badira.
- Ingurumen-jasangarritasuna sustatzeko estrategia baldin badago: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, mugimendu ekologistak eta ingurumen-arloko elkarteek parte hartzen badute eta/edo jasangarritasunaren agendaren alderdiak txertatzen badira.
 - Puntu 1, proiektuan baliabideak maneiatzeko eta kudeatzeko ingurumen-irizpideak ezartzeko mekanismoak baldin badaude honako hauekin lotuta: energia-eraginkortasuna, mugikortasun jasangarria, inpaktuak leuntzea, kontsumo arduratsu eta jasangarria, ekonomia solidarioa, eta abar.
- Zeharkako hori txertatzeko baliabide espezifikoak (ekonomikoak, giza baliabideak eta aliantzak) baldin badaude: gehienez 2 puntu.
 - Puntu 1, baliabide ekonomiko eta giza baliabide nahikoak badaude.
 - Puntu 1, ikuspegi hori txertatzeko aliantzak lortzera bideratutako baliabideak baldin badaude.

III.- ERAKUNDE ESKATZAILEA (PARTZUERGOBURUA): GEHIENEZ 10 PUNTU.**3.1.- Esperientzia gaiari dagokionez: puntu 1.**

- Puntu 1, azken 5 urte naturaletan (2019-2023) proiektuaren gaiarekin lotutako eta EAEn egikaritutako 3 proiektu edo ekimen, gutxienez, kudeatu baditu.

3.2.- Erakunde hezitzailea: gehienez 3 puntu.

- Puntu 1, ekitatearen aldeko indarreko plana baldin badu.
- Puntu 1, sexu-jazarpenaren eta jazarpen sexistaren kontrako protokolorik baldin badu.
- Puntu 1, ekonomia sozial eta solidarioko baliabideak erabiltzen badira.

3.3.- Parte-hartzea eta lotura: gehienez 2 puntu.

- Puntu 1, EAEko lankidetzaren arloko koordinakunde edo sare batean parte hartzen badu, betiere erakunde horrek jokabide-kodea badu eta dagokion jarraipen-batzordeak zigorrik ezarri ez badio.
- Puntu 1, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen hezkuntza-taldean, (H)abian 2030 Estrategiaren jarraipen-batzordean edo beste hezkuntza-sare batzuetan parte hartzen badu, eta hala egiaztatzen bada.

3.4.- Partzuergoak: gehienez 2 puntu.

- Puntu 1, eragile tradizionalen (GGKEak, hezkuntza-komunitateak, lanbide-heziketako ikastetxeak eta aisialdiko taldeak) arteko partzuergoa aurkezten bada.
- 2 puntu, aurkezten den partzuergoan eragileetako bat, gutxienez, tradizionala ez bada.

3.5.- Gizarte-oinarria: gehienez 2 puntu.

- Puntu 1, 200 bazkide baino gehiago baditu.
- Puntu 1, 10 boluntario baino gehiago baditu.